

Areatza eta Diman mendi martxak egingo ditue oingo hamabostaldian

10. eta 11. orrialdeak

Jakinduriek mundue erreko dau!

Urri lehenengoaren 29an, zientzia eta bertsoak buztartzen dituan ikuskizuna Igorreko Kultur Etxean izango da, iluntzeko 20:00etan. Miren Artetek eta Jon Maiak kantauko ditue bertsoak eta Naiara Barrado, Josu Lopez-Gazpio eta Onintze Salazar zientzilariak emongo dabez berbaldiak. **12. orrialdea**



Arratiako AEK-k euskaltegia estreinauko dau ikasturte barrian

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

302

2018ko urri lehenengoaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Jane Barratt-eri alkarrizketea



IFAko Idazkari Nagusiak tartetxo bat egin ertsan Toronton egindako Zahartzearen gaineko XIV. Mundu Biltzarren BEGITUREN galderai erantzuteko.

IFA (Zahartzearen Nazinoarteko Federazioa) sortu zanetik 45 urte pasau dira eta gizartea asko aldatu da denpora honetan. Dana dala, edadismoak, edadeagaitiko diskriminazioak, bardin antzera jarraituten dauala dino Barratt-ek. Andren erreproduzino osteko sasoiko osasunari be ez jakola nahikoa arreta emoten. Bere ustez honeek eta desbardintasunai aurre egitea dira edadeko jentearen bizimodua hobetuteko hurrengo urteetarako mundu osoan zehar aurre egin beharreko erronketako batzuk. **8. eta 9. orrialdeak**

Dimetal, hasi da atzerakontua

Hogeta hamar talde, lau eszenaleku eta egun bi. Sortu zanetik asko hazi da Dimetal Fest Euskal Herrian metalaren erreferente izateko bokazinoagaz. Urri lehenengoaren 28 eta 29an izango da Diman. Han, batez be Euskal Herriko metal musikearen panoramearen barri jakiteko eta estilo desbardinakaz gozatuteko aukerea egongo da. Izan be, 30 taldeatik 27 dira Euskal Herrikoak. **7. orrialdea**



IGORRE

Inbiu Eguna urri lehenengoaren 22an izango da aurten

Igorreko Euskera Planak antolatuten dauan Inbiu Eguneko urteroko zitea, hilaren 22an izango da. Jai giroan eta umorez, euskeraz biziteko aldarria egingo dabe. Horretarako eguerdian Agirre Lehendakaria beteko dabe igorretarrak, antolatzaileak planteauko deutseen erronea aurrera ateratako. EinGo Kantan eta Dantzaren taldearen kalejirak, eta Jokaldi taldearen erromeriak ipiniko deutso musikea egunari. **5. orrialdea**

ARRATIA

Jabekuntza Eskolea martxan

Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak 2018-2019 ikasturterako ikastaroak aurkeztu dauz. Nerea Barjolaren berbaldi batek emongo deutso hasikerea ikasturteari. Igorreko Kultur Etxean izango da urri bigarrenaren 5ean eta han Barjolak andren kontrako sexu indarkerian hedabideak jokatuten daben papela aztertuko dau.

Ikasturtean zehar, bederatzi ikastaro eta hainbat ekintza egingo dira Arratiako herrietan. Ikastarook sei ildo jorratuten ditue: andren identitatea, osasuna, kulturaren birdefinizioa, komunikazioa, feminismoa eta munduko andrak alkartasunean eta alkartrukean.

Ikastaroak devalde dira eta parte hartzeako astebete lehenago emon behar da izena Arratiako Udalen Mankomunitateko egoitzan zein webgunean. **5. orrialdea**

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Pardo



Argitasun gitxikoa, iluna da adjektibo honen esangurea (pardóa, ahoskatuta). Batez be eguraldiagaz lotuta erabilten da, denporea gris modu edo sano lainotsua dagoanean; esate baterako, esaldi bi honeek: "Denporea pardo modu jagok/n!" eta "Egun pardoa gaurkoa benetan!". Hona hemen pardo-gaz sortutako berba konposatu batzuk: a) astelehen-pardo (astelenpardóa, ahoskatuta) berbeak astelehena egun tristea dala esan gura dau; eta b) bekokipardo, barriz, persona tristeari edo gaumotzari esaten jako.

ERETXIA

Ez daigun euren bizitza beste alanbrada bat bihurtu

Arakalaz jositako gizarte "aberats" batean bizigarano lehen mundua osotuten ei dogu. Zer da lehen mundua, ostera?

Umetan eskolan Gerra Hotzaren sasoi hiru munduen arteko lehen banaketea egin zala erakutsi euskuen. Lehen mundua Estatu Batuen herrialde aliaduak, bigarren mundua Errusiaren herrialde aliaduak eta hirugarren mundua Errusiaren herrialde neutralak osotzen ebela ikasi genduan (azterketan be galdetu euskuen). Sasoi haretan Gerra Hotza, Estatu Batuak, Errusia... arrotzak ziran guretzat. Jolasean pentsetan genduan (eta azterketak gaintitzean be bai, gaia buruz ikasita bazan be).

Gaztetan, lehen mundua giza garapen maila altua lortu eben herrialdeak osotzen ebela esan euskuen, horrek bizi kalidade maila ona ebela esan gura ebala gaineratu euskuen (osasun arloan, hezkuntzan, erakunde demokratiko sendoak eta indartsuak ebezala...). Bigarren munduaren giza garapena eskasa zala.

Ikaskizun horregaz zur eta lur gelditu nintzan, ez eustelako inoiz irakatsi batetik hirugarrenera edo hirugarrenetik batera pasau eitekeanik bigarrenetik pasau barik. (Bigarrena zapaldu barik, jakina). (Edo hori irakatsi eben egunean ez nintzan igual eskolara joan... batek jakin!).

Heldutan, "lehen mundu" horren benetako ezaugarriak zeintzuk diran ulertu barik segiduten dot. (Eskoletan igual azalduko dabe, baina nik eskola sasoi aspaldi amaitu neban).

Heldutan ohartu naz giza garapen horrek ez dauzala baloreak kontuan hartzean. Eta gure gizarte honek horren beharizana dauala uste dot, horreek diralako



ALASNE ARTETXE

Irakaslea

nire eretxiz gizartearen benetako "maila" neurtzen dabenak: sentiberatasunak, zintzotasunak (ondradutasunak), eskertasunak (esker onekoak izateak), umiltasunak, errespetuak (adeitasunak), erantzukizunak (ardurak)...

Horreen guztien faltak sortu arazoten dau lehen munduko gizarte horren "hoztasuna".

Hainbeste mendetan munduan barrena emigrante eta immigrante moltsoa ibili eta bertakotu ziran arazo barik.

XXI. mendean, ostera, baliabide gehiago doguzan arren kosta egiten jaku gure artean ikustea, kosta gure modukoak dirala onartzea, kosta...

Euren herrialdeko "hoztasun" horretatik alde egin behar izan dabe, lurrez zein itsasoz, oinez zein txalupaz... sarritan alde egin horretan euren bizia galduz... eta guri kosta...

Laguntza beharrean dagoanari ez al jako laguntzarik emon behar? Hori be eskolan erakutsi euskuen, umetan, eta etxean (batez be etxean), eta guri kosta... Oin ez al da erakusten? (Edo hori irakatsi eben egunean igual huts egingo eben eskolan gure agintariak... batek jakin!).

Euren begietan isiltasuna, mina, tristurea, hutsa, bildurra... igarten da. Eta halanda be guri kosta...

Lauaxeta euskal olerkariak esan euskun dana emon behar jakola maite dan askatasunari, eta guk erraioa dauala pentsau arren... guri kosta...

Euren eta gure askatasuna ez al da bera?

Euren begietako arrakalak, pitzadurak zabalegiak dira, ez daigun ba euren bizitza beste alanbrada bat bihurtu.

Lehen mundua benetako lehen mundua (baloredun mundua) izan daiten lagundu daigun.

LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Ondarea, geurea

Egunotan eta errazoi desbardinakaitik, atzerantza begira jarrita nago. Harra-patuta nauka pena batek; gure herrian, Artean, persona jakin batzuen joanagaz edo, bizi eta ezetu izan doguzan hamaika istorio be, eurekaz galduko ete diran penea. Badakit bizitzan aurrera egin behar dana, baina hata guzti be, ezinbestekoa eristen deusat noz edo noz atzera begiratuteari, erabilitako bidea aitzu ez dagigun, besterik ez bada be.

Horregaitik itzartutean mobil edo esnagailuen soinua entzuten dodanean, askotan begiak zabaldu aurretik, umetako errementariko ingudearen "tintin-tinak" eta zerrako zorrozteko "xiirri-txiirriak" barriro gogoratzea gustetan jata; oindino bizi-bizi daukadaz, eta maite dodaz. Holakoetan, neure buruari galdetuten deusat ia gure gazteak jakingo leukien zer demontre diran "tono" baragarri horreek, edo ni bizi nazan "erretirik" eta aurreko zerratik urteten ebela. Jakingo leukie gure he-

riko bolalekua non egoan? Edo kereizarik gozoenak San Martineko Juana serorearenak zirala? Eta serorea zer zan? Eta jente xeblearen izenak? Inork kontau ete deutsee "Mataderoa" herriko muga bat zala eta jaietan, kontzertuetarako barik, "matadero parriba, matadero pabajokoen" kontrako sokatirako taldeai izena emoten eutsela? Kontetan ipini ezker... hamaikatxo behar! Eta behar ederra, aurten, eskolako arasti lasaiakaz batera, jubiladuen alkar-tearena. Oin dala 50 urteko jokoak plazaratu ebezan, eta dakigun arren "makiniten" kontrako gerrea galduta dagoala, ekintzaren balioa izugarria izan da. Han, ume, gazte, zein adinekook, ondarearen trasmisioaren balioagaz gozatu egin genduan. Atzerantzako begirada aberatsa.

Geroago, ezbeharra, desilusioa eta tristurea, Arteako Udal Gobernuak herrian daukagun herriko historia eta ondarearen erakuslerik inportanteena Ekomuseoa zarratu gura dauala jakin dogunean. Eta harridurea, han dagoan baserri eta herriko bizimoduaren testigantzea, herriar askoren ondare eta ilusioa izan dana, turismoa bultzatutearren edo modernidatearen erruz, alberge bihurtuko dabela jakitean. Lastima! Zaharrak barritzea ez da txarra, baina eskapolotaren ordeztakilak ipinteari edo tolareak, kaiku eta doteko altzairuen lekua literakaz beteteari, egia esan, ez deusat barrikuntzari handirik ikusten. Eta jubiladuen ereduari jarraituz, ondareagazko errespetuagaitik eta izandakoak izaten segidu dagien, EH Bilduri eskatuko neuskio, mesedez eta faborez, ez zarratuteko Ekomuseoa. Oindino sasoiz gabiz.

ZERTZEAN



LEIRE AGINAGA

Iraila

Iraultza bat eginez zure begietan galdu. Zure bizkarra gudu zelai bilakatu. Zure aldakak, aldiz, bunker. Babesleku. Etxe. Ez dira betikoak, ez, azkenekoz izan ginenekoak, melodiak aldatu dira, eta zer esanik ez usainak. Egia izango ote da kalean diotena? Irailarekin batera udagoiena ate joka datorrela. Irail usaina jario duzu. Goxoa bezain zorrotza den hori. Ez. Ez dut nahi, ez dut zuk ere orbel suiziden bidea jarraitzerik nahi. Ezta 11-Sko kamikazeena ere. Aurten ez. Oraingoan ez. Utzi diezaiegun zuhaitzei berriz loratzen, irailan bada ere.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Leire Larrabidek bialdu deusku argazki dibertigari hau *Burue total galdute* izenpean. Eguraldi ederra, ugerlekua, aktore lanetarako jaiok dirudien ume bi... eta umorea. Udan zein neguan umoreak atseginagoa egiten daualako bizitza. Ezinezkoa da argazkia begiratutea irribarretxo bat egin barik.

Hamar egun eskas baino ez dira geratzen udako argazkiak BEGITUKO Argazki Lehiaketara bialtzeko. Ez itxi beste momentu baterako eta bialdu zure argazkiak, 3 gehienez, begitu@topagunea.com helbidera. Sari ederrak dagoz.

Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexkolda, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 62 · 606 664 018

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Igorreko Euskera Planeko Inbiu Eguna hilaren 22an

Urtero legez, jai giroan ospatu eta aldarrikatuko dabe euskerea Igorren Inbiu Egunean.

Euskereagazko konpromisoa bultzatzeko helburua daukan erronka handia ez da faltauko.

Erredakzioa

Udal iturrien arabera, erronkeak herri guztia batuko dau eta umorez beteko dau Agirre Lehendakaria kalea. Zer izango dan ez dabe argitu gura izan.

Jaia, urri lehenengoaren 22an izango da. Egurdiko 12:00etan

hasiko dira ekitaldiak, kalejira batez. Kalejira, EinGO Kantan eta Dantzan taldeak eta Maurizia, Leon eta Fasioren erraldoiak animauko dabe. Ondoren, 13:00etan, izango da ekintza nagusia, "erronka erraldoia" Agirre Lehendakaria kalean.

Hiruretan, bazkaria Kultur Etxe-

ko plazan, eta bazkalostean, Ein-Go taldeagaz kantaldia.

Erromeria, 18:30etik aurrera izango da Igorrekoa dan Jokaldi taldeagaz AMEK antolatuta eta erromeria bitartean txokolatea bananduko da.

Bazkaria

Inbiu Egunean egingo dan bazkarirako txartelak hilaren 19ra arte erosi leitezke Gau Lora, Ezkiña eta Jubiladuen tabernan. Helduak 14 euro ordaindu beharko dabe eta 12 urtera artekoak 9 euro. Hel-

duen menua, marmitakoa, solomoa piperrakaz, tartea izozkiagaz, ardao eta kafea izango da eta gaztetoena makarroiak, solomoa patatakaz eta izozkia. Antolakuntzakoak bazkarira txartel barik ez joateko eskatu dabe.



ARRATIA

Nerea Barjolaren berbaldi batez hasiko da 2018/19 ikasturteko Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen eskaintzea

Erredakzioa

Nerea Barjolak Alcaster kasuaren gaineko tesia egin dau eta berau abiapuntu hartuta, poderearen planteamentua eta komunikabideen kontakizunen gaineko hausnarketea egingo dau Arratiako Andren Jabekuntzako Eskolako lehenengo hitzorduan. Igorreko Kultur Etxean izango da urri bigarrenaren 5ean, arrastiko 18:00etan.

Beste bederatzik ikastaro be egongo dira sei lan ildo jorratuteko. Ikastaroak, andren identitatea, osasuna, kulturearen birdefinitzioa, komunikazioa, feminismoa eta munduko andrak alkartasunean eta alkartrukean landu eta sakontzeko helburua daukie. Aurten, ikastaro batzuk luzeagoak izango dira, partaideak horixe eskatu eben-eta aurreko ikasturtearen balorazioan.

Ikastaroak

Isortze Fromosok plazerraren gaineko tailerra gidatuko dau; Pili Alvarezek, 16-19 urte bitarteko neskontzako autodefensa ikastaroa emongo dau; Zahira Montalvoren ikastaroan ahotsa erabilteko moduren kontzientzia hartuko dabe partaideak eta Kattalin Minerrek zelan egiten gaituen andrazko



Jabekuntza Eskolea.

aztertuko dau abendura bitarteko ikastaroetan. 2019an, Monica Nuñezek flamenkoa eta umorea erabiliko ditu ahalduz tresna moduan; Josebe Iturriozek maitasuna eta Inma Merinok autoestimua landuko dabe; Laura Ruizek mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa emongo dau eta Iratxe Retolazak euskal literatureari begirada feministegaz egingo deutso errepassoa. Andra migratzaileak be batuko dira hilean bitan urri bigarrenetik maiatzera arte.

Izena ikastaroa hasi baino asbetete lehenagora arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunidadean. Ikastaroak doban dira eta irisgarritasuna bermatuta dago.

LEMOA

Administrari lanpostu bat beteteko deialdia egin dau Udalak**Erredakzinoa**

Lemoako Udalak oposizino-lehiaketa bidez lanpostu bat beteteko deialdia egin dau. Bertan izena emoteko epea hilaren 3an zabaldu zan eta urri bigarrenaren 1era arte egongo da zabalik. Plaza hau 2017ko EPEari jagoko.

Hautaketa prozesuak fase bi izango ditu: oposizino fasea eta lehiaketa fasea. Oinarriak eskuragarri dagoz Udalaren webgunean.

LEMOA

Lemoa ureztatzen herriko merkataritzaren aldeko sensibilizazio bideoa**Erredakzinoa**

Herriari bizitasuna emoteko herriko dendak ezinbestekoak diralakoan, Lemoako Udalak eta merkataria sensibilizazio kanpaina abiatu dabe. Helburua jentearen erosteko ohituretan eragitea da, eta lemoaztarrak herritik urten barik, herriko dendetan konsumidu dagiela. Horretarako Youtuben ikusi daiteken bideoa prestatu dabe.

Sensibilizazioaren arloan lan egiten jarraituteko asmoa dauka Udalak. Gabonetan, aurreko urteetan legez, bonoak aterateko asmoa daukiela jakinarazo deustse BEGITURI Udaletik.



ARRATIA

Ariketa fisikorako eskaintza handia udal ikastaroetan

Hipopresiboak, Mantenimentuko gimnasia, Pilates, Yoga, Zunba... ariketa fisikoan oinarritzen diran ikastaroak daukie arrakastarik handiena Arratian eta horreexek osotuten dabe udalak 2018-2019 ikasturterako egin daben eskaintzearen gehiena.

**Erredakzinoa**

BEGITUREN aurreko zenbakian, Bediak, Dimak eta Lemoak eskaintzen dituen ikastaroen barri emon genduan. Hona, Arantzazun, Areatzan, Artean, Zeanurin eta Zeberion eskaintzen diranak dakarguz. Izena emoteko epea hilaren amaierara arte zabalik dago gehienetan.

Arantzazu

Arantzazun ikasturte osokoak dira ikastaroak, eta ariketa fisikoak egiteko aukerak erraztu gura deutse arantzazutarrak. *Mantenimentuko gimnasia, Zunba, Spinning* eta *Entrenamentu funtzionala* dira Udalak eskaintzen dituen ikastaroak. Izena emoteko epea zabalik dago hilaren 20ra arte.

Areatza

Areatzak *Zunba, Zunba txiki* 12 eta 16 urte bitartekoentzat, *Gimnasia, Eskulanak, Crossfit, Pilates, Euskal jantzak, Yoga* eta *GAP* ikastaroak eskaintzen ditu. Ikastaroak aurrera aterateko gutxienez 10 personako taldeak osatu beharko dira. Prezioai jago kienean, *Euskal jantzak* ikastaroa debaldekoa da, *Yogak* 80 euroko prezioa dauka eta gainontzeak 110 eurokoa. Izena hilaren 22ra arte emon ahal da udaletxean.

Artea

Artean, *Eskulanak, Arte aplikatuak, Zunba, Edadekoentzako gimnasia, Yoga, Pilates, Euskal*

jantzak umeentzat, *Jantza moderna* eta *Txi kung* ikastaroak egin ahal izango dira. Ikasturte osorako dira eta prezioak 40 eurotik 120 eurora bitartekoak.

Zeanuri

Zeanuriko Udalak eskaintza zabala egin dau aurten be: jarduera fisikoko ikastaroak, arteari lotutakoak eta edadekoai zuzendutakoak. *Pilates, Zunba, GAP, Entrenamentu funtzionala, Txi kung, Gimnasia, Hipopresiboak* eta *Luzaketak* dira jarduera fisikoari lotutako ikastaroak. Pintura eta josten be ikasi daiteke ikasturte honetan. Edakoentzako gimnasia klaseak be eskaintzen ditu Udalak. Gimnasiako klaseak urri lehenengoaren 5ean hasi ziran, *Pilates, Zunba, GAP, Luzaketak, Edadekoen gimnasia* eta *Entrenamentu funtzionala* hilaren 17an hasiko dira eta gainontzeak urri bigarrenaren.

Zeberio

Datorren hilean beste ikastaroren bat be sortuko dalakoan, momentuz altzariak zaharbarritzateko ikastaroa eta euskerea ikasten dabenai diru laguntzea eskaini deutse Udalak. Altzariak barritzateko ikastaroak arrakasta handia izaten dau Zeberion. Igaz ezin izan zan egin, baina aurten barri antolatu dabe Leire Sagarduren eskutik. Udalak matrikulearen %40ko diru-laguntzea emongo dau eta izena urri bigarrenaren 1era arte emon daiteke udaletxean.

IGORRE

Ekintza Plana aurkeztuko deutso Bizi Igorrek Udalari**Erredakzinoa**

Urri lehenengoaren 12an, Bizi Batzordekoak batzartu ziran Igorre edadekoak lagunkoia izan daiten hurrengo urteetarako Ekintza Plana osotuteko, ekintzak aztertu eta helburuak definituteko. Eta hilaren 19an batuko dira barri atzenengo erreposoa emoteko. Asmoa, Ekintza Plana, Udalari, urrietan bertan aurkeztea izango litzateke. Batzordean, Torontoko Zaharztearen gaineko XIV. Mundu Mailako Biltzarren barri be emon eben Itsaso Bengoetxea, Felipe Bemaola eta Jabi Zuluaga Bizi Batzordeko kideak.

Plana 2019 eta 2021 artean egongo da indarrean eta bertan 80 ekintzatik gora zehazten dira. Ekintza horreek 8 arlo hobetuteko helburua daukie. Arloak honeek dira: Espazioak, aire zabalean zein eraikuntzak; Osasun eta Gizarte

Zerbitzuak; Etxebizitza; Garraioa; Herri partaidetza eta enplegua; Gizarte parte hartzea; Errespetua eta inklusioa, eta Komunikazioa eta informazioa.

Arratia eregiten

Urri bigarrenaren 1ean, Persona Nagusien Nazinoarteko Eguna da. Hori dala-eta, bazkaria antolatuten dabe Arratiako herrietan herri bakoitako jubiladu alkarteak. Aurten, lehenengo aldiz, bazkaria danak batuta egiteko asmoa dago. Urri bigarrenaren 7an izango da Igorreko eskolako aterpean. Igorrekoak, Arantzazu, Areatza, Arte, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko alkarteak ipini dira kontaktuan, ekintzak eta aldarrikapenak Arratia mailan egin ahal izateko. Bazkalostean, erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz.

Basora urtekerak bat be antolatu gura dabe Arratia mailan.

**Bizi Igorreko batzar bat.**

Euskerazko ikastaroai jagokienean be, ikastaroa antolatu baino, Bizkaiko euskaltegietan matrikuletan diranai diru-laguntzea

emongo deutse. Diru laguntzak jasoteko izena urri lehenengoaren 28ra arte emon daiteke udaletxean.

DIMA

Anestesia taldea izango da kartelburu Dimetal Fest-en

Urri lehenengoaren 28 eta 29an izango da metalaren jaia Diman. Jaialdia handi egin da aurten eta egun bitan, 30 bandak joko dabe lau eszenalekutan; euretako 27 Euskal Herrikoak. Bost taldek bariku gaubean joko dabe eta beste 25ak zapatuan. Aurrekontua aurreko urtekoa halako hiru dala dinoe antolatzaileak, baina 1.500 eta 2.000 lagun inguru jaialdira hurreratzea espero dabe, eta herrian inpaktu ekonomiko handia izatea.



Erredakzioa

Zapatu gaubean, eszenaleku nagusian, The Faithless, Auritz,

Crisix, Anestesia eta Angelus Apatrida izango dira. Anestesia talde historikoak, *Gorrotoaren ahotsa* albumaren 25 urteak ospatuko



Last Days of Eden igazko Dimetal Fest-en.

dauz eta jenteak ondo ezetuten dituan kantuak eskainiko ditu. Crisix-ek eta Angelus Apatrida-k barriz, euren azken diskoak aurkeztuko ditue: *Against the odds* Crisix-ek eta *Cabaret de la guillotine* Angelus Apatridak, hain zuzen be. Whaldemar taldeak be diskoa aurkeztuko dau *Against all kings* izenekoa, Infernu eszenalekuan zapatuan 22:55ean.

Barikuan, Koba eszenalekuan, 20:00etan hasita, Sönambula, Perrobala, Alma Culter, Kartzarot eta Dominium izango dira. Death metal egiten dauan Sönambula taldeko baterajoleak, Maider Narbaizak, eskolak emoten ditu Igoerreko Institutuan eta publikoaren artean egongo da bere ikaslerik, duda barik.

Eszenaleku horretan bertan, hurrengo egunean, After Life, Extinction, Bloody Brotherhood, Aposento eta A.D. bandak death eta metal ilunena eskainiko dabe. Infernu eszenalekuan barriz, Meltdown, Niketz, The Wizards, Whaldemar eta Overloud taldeak hard rock eta metal klasikoena joko dabe.

EH Matxete eszenalekua talde barrientzat izango da. Han, hamar talde egongo dira metalaren joera barriak ezetuten emoten.

Musikea eta gehiago

Dimetal Fest ez da musika jaialdia bakarrik eta kultura ekitaldi eta ondo pasetako jardueraz betetako egitaraua dakar. Holan, zapatuan, goizeko 11:00etan, Dani Alvarez EITBko kazetariak gidatutako eztabaida-barriketaldia egongo da Abaroa Aretoan eta jaialdian joko daben taldeetako partaide batzuek be hartuko dabe parte bertan.

Bitartean, plazan, umeentzako jolasak egongo dira. Han, Santutxuko Clandestine-ko tatuatzailea izango da, umeai "tatuajeak" margozten. Gero, herri metal kirolak izeneko jardueran, bost herri kirolari arratiarrek erakustaldia egingo dabe Whaldemar taldeko Pedro J. Mongek gitarra jo bitartean.

Bazkaria egongo da gero eta bazkalostean, metal olinpiadak.

Arrakasta handia izaten dabe olinpiadok. Bertan, lau personako taldeak, bost proba xelebretan neurtzen dira.

Kontzertuen ostean, egun bakotxean dj bat egongo da. Barikuan, DJ Achtung, Koldo Gilen Munitxa izango da musikea ipintzen ibiliko dana, eta zapatuan DJ Jarros, Dani Alvarez.

Zapatuan gainera, erromeria be egongo da Ezten Giro taldeagaz. "Erromeria bat ipini dogu, Dimako esentzia ez dogulako galdugura eta herriko jenteak beti ondo pasetan daualako erromeriakaz" dinoe antolakuntzatik.

Hau danau aurrera ateraten lagunduteko, leku askotatik etortitako jenteak egingo dau borondatezko beharra. "Jente asko behar dogu txosnetan txandak egiteko, parkinetan, *backstagean* egoteko, segurtasun neurriak beteteko, dana koordinetako... Dimako jenteaz aparte kanpotik etortea be eskatu dogu eta erantzuna sano positiboa izan da. Jente asko dator Bilbotik, Bermeotik eta Portugaletetik. Igorretik be jente asko animau da guri lagunduten". Lagundu gura izan ezkerro, webgunean emon daiteke izena edo antolakuntzakoakaz kontaktuan ipinita.

Pasinoa, konpromisoa eta alkartasuna

Dimetal Fest jaialdia, dimoztar batzuek metal musikeari deusien pasinoagaitik sortu zan, baina pasino horrezaz gainera, konpromisoa be bada jaialdiaren beste ezaugarrietako bat. Konpromisoa, Euskal Herriko musikeagaz, eta hau bertoko banden kopuruan islatzen da. Konpromisoa etorkizunagaz, banda barriai eskainitako eszenalekuan erakusten dana. Baita genero bardintasunagaz be. Izan be, metal musikan andrak daukien lekua ikusgai egin gura dabe Dimetaleroak. Horregaitik, Andraizea Dimako andra taldearen laguntzeagaz, Unai Endemañoren *Rock and Roses* argazki erakusketea antolatu dabe urri lehenengoaren 17tik aurrera Infomazino Bulegoan. Akaso metal banden mundua sano maskulinizauta dagoalako, andren presen-



tzia txikia da jaialdian: joko daben taldeen artean ez dago andrak bakarrik osotutako talderik eta andrazkoen presentzia daukien taldeak %14ra ez dira heltzean. Lau dira: After Life, Alma Culter, Sönambula eta Song of Anubis, hain zuzen be.

Pasinoa, konpromisoa eta alkartasuna. Alkartasunerako stand bat egongo da jaialdian eta AEN, Autismoaren Espektroko Nahasmenduaren informazioa emoteko mahaitxo bat egongo da. Lemmy eszenaleku nagusian joko dauan Auritz taldea, sindrome horren gainean konzienietako sortu zan. Dimetal Fest-ek be, lekutxo egingo deutso horrerik.

Dimako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Pepsi Max Zeroren babesa dauka jaialdiak.

Dimatik mundura eta mundutik Dimara

Hasikeran herrian sortu eta herriko bazan be, aurten egin daben saltoagaz, Dimako herria metal musikearen erreferente izatea gura dabe, Euskal Herri osoan ezaguna. Duda barik jente asko etorriko da hainbat lekutatik, metal munduak ezetuten daualako daborduko Dimetal Fest. Belgika, Eslovenia, Alemania eta Espainiatik jentea etorriko dala dinoe antolakuntzakoak. Bilbo, Bermeo, Gasteiz eta Donostiatik autobusak ipiniko ditue Dimara joan-etorria egiteko.

Kotzez datozenak barriz, Igoerreko Industrialdean, Dimako aldean aparkau behar dabe eta handik herrira hurreratzeo autobusa ipiniko dau antolakuntzak.

Non akanpau be egongo da.



Garrasirik luzeena, metal olinpiadetako proba bat.

ZAHARTZEAREN GAINEKO XIV. MUNDU MAILAKO BILTZARRA TORONTON (II)

Jane Barratt: "1973tik hona aldatu ez dana edadismoa da"

Jane Barratt IFAren Idazkari Nagusia da. IFA (*International Federation on Ageing*, Zahartzearen gaineko Nazinoarteko Federazioa) gobernuz kanpoko erakundea da. Nazino Batuai eta Osasun Mundu Erakundeari lotuta dago. Abuztuaren 7tik 10era Zahartzearen gaineko XIV. Biltzar Nagusia antolatu eban IFAk Toronton (Kanada). Han, nagusien bizimodua hobetuteko politiken gainean hausnartzeko 76 herrialdek hartu eben parte.

Biltzarrean, Jane Barratt-ek tartetxoa egin eutsan BEGITURI IFAren zahartzearen ikuspegiaren barri emoteko.



Jane Barratt.

Erredakzioa

Zein izan da Zahartzearen gaineko Mundu Mailako XIV. Biltzar Nagusi honen helburua? Zenbat jentek hartu dau parte?

IFAren Mundu Mailako Biltzar Nagusiaren markoa, OMEren mundu mailako estadien estrategiaren gaiakaz eginda dago, euren herrialdeetan egindakoa kontetan datozen ordezkarien jakintza eta grina geureganatu gura doguzalako. IFAren Biltzar Nagusiak bereziak dira bertan eskudunak, profesionalak eta ikerlariak batzean diralako; oinarriko komunitateak, liderrak eta partaideak. Bereziak dira danak batera egoten diralako. Ez da gerontologo edo geriatren biltzar bat. Biltzar honetan, jente nagusiaren arazoetan eragina daukien gaien gaineko alkarizketa esanguratsuak eta eztabaidak dogoz. Gauza txikie-

netik hasita; esate baterako, botila bat zabaltzeko gai izatea edo ez, gauzarik handienetaraino; robotika, barbarako. Maila guztietako politiketan eragina euki gura dogu: estadi mailan, zein komunitade mailan.

Gitxi gorabehera 1300 lagun etori dira 76 herrialdeetatik. Eta 120 boluntario inguru daukaguz antolakuntza beharretan.

IFA federazioa da. Ze alkar-te edo erakundek osotuten dabe?

Bost taldek osotuten dabe IFA Federazioa: gobernuz kanpoko erakundeak, gobernuak, industriak, akademiak eta edadeko jenteak. Bost taldeon alkarlanak lagunduten daualako eragina izaten politikan.

Guk, bizitzak errespetata eta babestuta daukien jente nagusi osasuntsuaren mundu bat gura dogu. Gure helburua aditu eta ari-

tuen konexino puntu globala izatea da, edadekoen gaineko politikak bultzatu eta eragiteko.

45 urte dira IFA sortu zanetik. Ia mende erdi honetan jendartea asko aldatu da. IFAren helburuak be bai? Ze helburu bete dira? Zeintzuk dira erronka barriak?

Erronkak aldatzen joan dira. 1973an ez genkien bizi itzaropena hainbeste haziko zanik. Gaur egun, 70 urte, 80, 90 eta baita be 100 urteko jente asko dago osasuntsu eta modu independientean biziten. Ikusi dogu medikuntzeagaz luzeago bizi gaitekezala, baina akaso, ez behar dogun bizi kalidadeagaz. Eta politikai erreparatzen deusegunean ikusten dogu nagusiei laguntzeko zerbitzuak aldatu egin dirala 1973tik hona, eta teknologia asko daukagula funtzionalago izaten lagunduten deuskuna. Baina dauka-

gun erronkarik inportanteenetako bat da familien egiturea zeharo aldatu dala. 1970eko hamarkadan familia eredu bat egoan eta orduan, oingo aldean, seme-alabak luzeago egoten ziran etxean.

Beraz, erronkea da jente nagusi asko dagoala, luzeago bizi dala, eta askotan bakardadean eta isolatuta. Gainera, jente nagusiak gaisotasun kronikoak izaten ditu funtzionalak izan arren. Horregaitik osasun eta zerbitzu sistema osoak garatu behar dira.

Zaharren kontrako indarkeriak be gora egin dau: indarkeria finantzarioak, fisikoak, mentalak eta baita sexualak be. Eta ardurabakotasunak. Gizartea aldatu egin da eta ezin doguz alde batera itxi zintotasuna eta duintasuna. Jente guztiarentzat, ez bakarrik nagusientzat.

Aldatu ez dana da edadeagaitiko

diskriminazioa, nagusien babes faltea be begi bistan dago. Horretan zentrau behar gara. 2018an be edadismoa dago, 1973an legez.

OMEk gura dau 2020-2030 hamarkadea zahartze osasuntsuaren hamarkadea izatea. Zer esan gura dau horrek? Zertan gauzatuko da?

OMEk bere estadi kideai egiten deuten proposamena da hori. Gu bat gatoz proposamenagaz; geure estrategia globala OMEren zahartzaroaren eta osasunaren gaineko txostenetik abiatuta egin dogu-eta.

Zahartze osasuntsuaren hamarkadeak osasun zerbitzu bateratuak egiteagaz zerikusia dauka. Gida bat da zerbitzuak konektetako; esate baterako, kardiologia eta gerontologia. Zahartze osasuntsuaren hamarkadaren planak be lagunduko dau zaintza



Torontoko Ryerson Unibersidadea.



Chelsea Hotela.

sistema, zaintza komunitatea eta etxebizitza zaintzagaz lotzean, nagusiak balioetsuak diran komunitateetan biziten jarraitu ahal izateko. Ze nagusiak ez dira zertan dependienteak izan. Gainera, neurtu egin behar dogu zenbateko eragina daukien hainbat zerbitzu eta esku-hartzek. Horregaitik guztiagaitik, bat egiten dogu OMEren zahartze osasuntsuaren hamarkadeagaz.

Zeintzuk dira zahartzeko munduko herrialderik onenak?

Ikuspegi desbardinatetik begiratu ahal deusagu horri. Begiratu geinke herrialde baten dagoan gizarte egitura eta horretan ea nagusiak errespetetan diran. Begiratu ahal dogu be diru aldetiko ikuspegitik, zergakaz lotutako eskandinaviar herrialdeen mailari, esate baterako. Baina horrek ez dau esan gura, edadeko pertsona ez dagoala isolatuta, baztertuta edo bakardadean.

Hori bai, badakigu auzune pobreetan bizi dan jentea lehenago hiltzen dana, daukien desabantailak dirala-eta: elikadura eskasa, kirola egiteko aukera faltea... Horreek gauzok erabagigarriak dira osasun kontutetan. Beraz, faktore ugari

hartu behar dira kontuan.

Andrak be desabantaila egoeran heltzean dira edadera. Sexismoa egiturazkoa denez, bizitza osoan sufrituten dabe diskriminazioa eta zama horregaz zahartzen dira. Sexismoak eta edadismoak bat egiten dabenean, zer?

Sano galdera interesgarria da hau ze benetan be andren gizarte identitatea eta burrukea bizitza osoan zeharrekoak dira. Batzuetan gaintzen dogu, feminismoari eta genero identitate postestrukturalari esker.

Bai, zerbaist badakigu genero desbardinatasunaren inguruan. Eta hori gauza ona da. Txarto egiten gabizena da ez deusagula nahikoa arretea emoten erreproduzino edadearen osteko andren osasunari.

Lan handia egin da andrak eta erreproduzinoaren inguruan, baina ez osteko sasoiaren andren osasunaren inguruan.

Zelan erantzun horri? Sareak eginaz. Herrialde batzuetan andrak ahaldunduago dagoz eta euren abotsa etzun arazo egiten dabe. Hor dago esate baterako Ontarioko *Older Women's Network* (Edadeko Andren Sarea). Edadeko andren premina eta arazoaren ordezkari dira eta batu ezker, politiketan eragina izan daikie.

Andrak jarraitu beharko dabe euren osasunaren gainean arretea berezia eskatzen. Gizonak be euren arazoak daukiez osasun kontuetan. Uste dot errekonozidu egin hehar dogula gizon eta andren artean desbardinatasunak dagozala osasun kontuetan hainbat errazoi desbardinengaitik.



begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

MENDI MARTXEA

Arrabatik pasauko
dira Areatzako Mendi
Martxako ibilbide biak

Urri lehenengoaren 22an izango da Areatzako VII. Mendi Martxea. Aurreko urteetan moduan ibilbide bi izango ditu. Luzeak 28 kilometro ditu eta 1.500 metroko desnibel positiboa eta laburrak 20 kilometro eta 750 metroko desnibela.



AREATZAKO MENDI MARTXA
2018ko urri 22, 23 eta 24

www.areatzakomendimartxa.blogspot.com

Informazioa:
Martxaren hasiera: 8:00etan.
Comienzo de la marxa: 8:00.
Amalieran "Parrillada" eta oparia.
Al finalizar "Parrillada" y regalo.
AREATZAKO HOTEL BAINUETXEAN gau bat eta ATXARTE MENDIKO DENDAREN materiala zozketatuko da.
Sorteo de una noche en el HOTEL BALNEARIO AREATZA y material de ATXARTE MENDIKO DENDA.

Erreklamazioa:
Trailak 30 baino lehen gure web gunean eta 8€ sartuz
Antes del 20 de septiembre en nuestra web y abonando 8€
- BIK 2005 0075 00015343560

Egun berean: Irteera puntuan, 7:15etik aurrera, 12€
- El mismo día, en el punto de salida a partir de las 7:15 12€

Patroiz:
Hotel Areatza *** Balneario, Kaiku, Coca-Cola, Cruz Roja Guztas Guztas

Erredakzioa

Martxa laburrean parte hartzean dabenak, antolakuntzak autobusez igongo ditu Bikotxganera, desnibela kendu eta martxako zatirik politenak egin dagiezan. Urtekerea 08:00retan izango da herriko plazan.

Ibilbide luzea Areatzatik urten eta Atxeko, Martxondi, Perretxiko zabalera, Upo, Asteitze, Mendigana, Hirumugarrieta, Pagomakurre, Atxulo, Areatzako neberoa, Potxoleta, Arraba eta Karkabitxuetatik pasauko da barriro Areatzara heltzeako.

Ibilbide laburrari jagokonean, ibiltariak autobusez joango dira Bikotxganera eta handik, Mendigana, Hirumugarrieta, Pagomakurre, Atxulo, Areatzako neberoa, Potxoleta, Arraba eta Karkabitxuetatik pasauko dira martxea Area-

tzan amaituteko.

Martxan zehar jan-edan puntu bi egongo dira eta amaitutakoan parrilladea partaideentzat.

Izen emotea

Izena hilaren 20ra arte emon daiteke areatzakomartxa.blogspot.com webgunean edo egunean bertan plazan 07:15etik aurrera. Prezioa 8 eurokoa da alde aurretik izena emon ezker, eta 12 eurokoa egunean bertan. Prezio barruan, kamiseta tekniko jaso eta zozketan parte hartuko dabe izena emoten dabenak. Areatzako Hotel Balnearioan gau bat eta Atxarte kirol dendako materiala zozketatuko dira.

Areatzako Udalak, AKKBk, Laminio Kirol Klubak eta Frakazuri Gazte Asanbladeak antolatu dabe mendi martxea.

BOLA JOKOA

Bola-jokoan neurtuko dira
Zeanuriko zazpi kofradiak
Altzustan San Migel egunean

Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 29an, San Migel egunean, Altzustako bolatokia jokatuko da Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea. Udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeako aukerea: Altzuak, Altzusta, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerimendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, "gerrea" jokatuko litzateke.

Alberto Zuluagarentzat
bakarkakoa

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatuko dira Zeanuriko Altzuan, San Juston eta San Lontzon eta toki bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak hartu eben parte Zeanuriko bakarkako txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Alberto Zuluaga otzerimendiztarra izan zan eta



Kofradien arteko Bola Txapelketea Zeanuriko.

DUATLOIA

Duatloi
Herrikoia
hilaren 30ean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 30ean, Oskar Garro Lagun Taldeak Igorreko Udalarren laguntzeagaz antolatuta, Igorreko VI. Duatloi Herrikoia izango da eskoletan. Hiru kategoria egongo dira: 0 eta 5 urte bitartekoa, 6 eta 9 urte bitartekoa eta 10 eta 15 urte bitartekoa.

Bost urte arteko umeen probak izango dira lehenengoak. 11:00etan hasiko dira eta 300 m. galapan, eta 300 m. bizikletan egingo dabez. Ordu laurden beranduago 6 eta 9 urte bitartekoak hasiko dira. Honeek 300 m. galapan, 900 bizikletan eta beste 300 m. barriro be galapan. Nagusienak, 11:30ean urtengo dira eta 900 m. arineketan, 1.200 m. bizikletan, eta 900 m. arineketan egingo dabez. Amaitutakoan kopautxoa eta opariak zozketatuko dira.

Izen emotea 10:00etatik 10:45era izango da eskoletan. Partaideak 3 euro pagau behar dabez.

Oskar Garro Lagun Taldeak duatloia antolatuten dau ziklismo egokitutako txirrindulari igozteratara lagunduteko. Jasoten dan dirua, alde batetik duatloia bera pagetako eta bestetik ziklistari entrenamenduak lagunduteko eta txapelketetan parte hartzeako erabilten da.

TXIRRINDULARITZEA

Oscar Rodriguez nafarrak
garaipen historikoa emon
eutsan Euskadi Murias-eri

Oscar Rodriguez.

Alvaro Rabelli

Zorioneko dagoz Euskal Herriko txirrindulari zaleak, aspaldiko Euskaltel-Euskadi talde gogoangarriaren egun loriatsuak bueltan dagozalako, oin Euskadi Murias taldearen eskutik. Horren erruduna Oscar Rodriguez txirrindulari burlatarra izan zan. Horrek garaipen historikoa emon eutsan Euskadi Muriaseri Vueltako 13. etapen, urri lehenengoaren 7an, Camperonan. Burlatarrak egun haretako igesaldia harrapau Camperonako aurgoretan, atzean itxi tropeleko nagusiak eta garaipen harrigarria lortu eban. World Tourreko lehen garaipena izan da Euskadi Murias taldearentzat. Garaipen horrek Euskal Herriko

bigarren eta hirugarren tokietan Inazio Goioaga eta Juantxo Ozerinjaruregi sailkatu ziran.

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketeak Zeanuriko Udalarren babesla eta Altzustako kofradiaren eta Ellauri Hoteleko Kiloterdi Txokoaren laguntzea izango dau.

Sariak honeek izango dira: talde irabazleak 200 euro eta kilo eta erdiko txuleta bi bere osagarriak bazkaltzeko edo afaltzeko aukerea izango dau Kiloterdi Txokoan, Ellauri Hotelaren jatetxean. Bigarrena 120 eurokoa izango da eta hirugarrena 100 eurokoa. 2017an Iburgueneko taldeak jantzi eban txapela.

zaleen arreta aton bitzu dau, Oiz mendiko altzoetan be ikusi ahal zan moduan. Marea berdea martxan dago.

Hor ez dira Euskadi Murias taldearen inguruko barri onak amaitzen. Izan be, 2019an be Kontinental mailan segiduko dau, laguntza garrantzitsu eta handiagaz. Eusko Jaurlaritzak berak be interesea azaldu ei dau diruz lagunduteko, taldeak Euskadi markea eroatearen truke.

Gogoratu daigun Euskadi Murias txirrindulari taldeak hartuemon estu-estu daukala Arratiagaz. Izan be, taldea Gipuzkoako Murias eraikuntza enpresa eta Igorreko AZE alkartearen artean sortu zan 2014ko urrietan lehen mailako euskal txirrindulari talde profesionala eukiteko asmoz; baina, aldi berean, herrietako txirrindulari taldeak batera lan egingo ebana, beti txirrindulari gazteen "harrobia" jagoteko helburuagaz. Gainera, handik hilabete batzuetara, 2015eko zezeilaren 24an, taldeak lehenengo agerpena egin eban jenteaurrean, Igorreko San Kristobal auzunean, AZE (Arratiako Ziklista Elkarte) jaio zan lekuan. Egun haretan Euskadi Murias taldeak Gasteiz-San Kristobal lasterketan parte hartu eban.

FUTBOLA

Arratia lidertzan



Arratia.

Erredakzinoa

Arratia Futbol Taldeko andrazkoen lehenengo taldeak hasi dau ligea Euskal Ligan. Lehenengo partidua hilaren 8an jokatu eban Elorrioren kontra eta 0-4 irabazi eban Arratiak. Hilaren 16an jokaturako bigarren partiduan Goierri Gorri taldeagaz neurtu zan eta Arratiak 2-1 irabaztea lortu eban. Arratia lider dago sailkapenean 6 puntuz. Datorren partidua Derioren kontra jokatu dau 22-23ko astegienean etxetik kanpo.

Arratia gizonetakoak

Gizonetako lehen taldeak Bizkaiko Lurraldekoa Ohorezko Mailan jokatu dau. Hilaren 22an daukie aurreneko partidua Retuertoren kontra etxetik kanpo 17:30ean. Arratia Bk, oster, Urbietan jokatu dau lehenengo partidua hilaren 22an 17:15ean Galdakao B taldeagaz neurtuko da. Arratia Bk Bizkaiko Lurraldekoa Bigarren Mailan jokatzen dau.

LemoaHarrobi

Lemoako taldea, aurreko denporaldian igotea lortu eta gero, Bizkaiko Lurraldekoa Lehenengo Mailan dago. LemoaHarrobi Ermua A taldeagaz lehiatuko da ligako lehen partiduan hilaren 22-23ko astegienean.

MENDI DUATLOIA

Euskal Herriko txapela jokatu da Zeanuriko Mendi Duatloian



Partaideak igaz urtekerako momentuan.

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 6an, 16:00etan, VIII. Euskal Herriko Mendi Duatloia Zirkuituko 5. proba jokatu da Zeanuriko. Euskal Herriko txapela be jokatu da proba horretan. Joko Alaik Udalaren laguntasunagaz antolatuten dauan mendi duatloian, 16 urtetik gorako edozein kirolzaleki hartu ahal dau parte. Kirolzaleki zuzendutako lagun arteko proba herrikoa da eta kirolari federatuak lehiatu, eta erlojuari eta sailkapenari begiratzen ez deuseen kirolariak batuko dira mendi duatloia honetan.

Igazko moduan, neska bikoteak, mutil bikoteak, zein mistoak, hartu ahal izango dabe parte eta erreleboka egiteko aukerea dago. Hau da, arinetan egiten dauan hasi eta amaitu egingo dau proba eta bizikletakoak bigarren sektorea egingo dau. Antolakuntzako arabera, Euskal Herriko Mendi Duatloia Zirkuituko lasterketa guztietan erreleboka hartu ahal izango da parte, herritar gehiagori zabaldu gura deuseelako duatloia.

Goizeko 11:00etan umeentzako mendi duatloia egongo da.

Izen emotea

Izena probaren bezperara arte, urri bigarrenaren 5era arte, emon daiteke www.kirolprobak.com webgunean, 15 euro ordainduta bakarka parte hartzean dabenak eta 25 euro ordainduta erreleboka parte hartzean dabenak. Egunean bertan be, izena emoteko aukerea egongo da Zeanuriko, 20 euro ordainduta bakarkakoak eta 30 euro ordainduta errelebotaetako bikoteak.

Euskal Herriko zirkuituko bosgarrena

Euskal Herriko Mendi Duatloia Zirkuituko bosgarren proba izango da Zeanuriko. Zirkuitu honetako lehenengo mendi duatloia, Ibarra izan zan urri lehenengoaren 8an. Bigarrena Igarzan jokatu zan hilaren 15ean eta 22an eta 29an beste bi jokatu dira, Urduñan eta Arriaranen, hurrengo hurrengo.

Zeanuriko probaren ostean beste hiru jokatu dira urri bigarrenaren: Getarian 12an, Amasan 21ean eta Zegama-Aizkorri 27an. Zirkuituko atzenengo biak zemen-dian izango dira: Usansolon zemen-diaren 10ean eta Adunan 24an.

MENDI MARTXEA

Hamazortzi ermita ikusteko aukerea emoten dauan ibilaldia antolatu dabe Diman

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 22rako antolatu dau Dimako Udalak, Dimako 18 ermitatik pasetan dan ibilaldia. Guztira 32 kilometro dira, baina ibiltariak ibilbide osoa edo zati bat egiteko aukerea be badaukie. Urtekerak, goizeko 07:00retan izango da herriko plazatik. Martxea amaitutakoan kopaua egongo da martxan parte hartu dabenentzat.

Ibilbidea igazko bera izango da eta hurrengo leku eta ermitetatik pasauko dira ibiltariak: Herriko plazea, Piedadea, San Pedro parrokia, Artzubi, Munetxa, San Migel Txiki, Iraurgi, Olazabal, Roke Deuna, Untzurdi, Arostegieta, San Inazio, Lamindao, Magdaleña, Petralanda, Goikogana, San Blas urriko, Elgabide, Urzabaleta, Kortabarria, Zamakola, Olalde, San Fresku, Gibiltar, Jentilzubi,

Abaro, Baltzola, Lontzo Deuna, Bargondia, Santa Mañe, Santa Apolonia, Bargaun, Egiraun, Zubero, Oba goikoa, San Antolin, San Martin, Ugariotz, Artaun, Bizente Deuna, Bikarregi, Santa Ageda, Bizkorna, Biteriño, San Millan, Santiago, San Balentin eta herriko plazea.

ERMITEN IBILALDIA. DIMA 2018

Noti: Irailak 22, asteartea
Urteera ordua: goizeko 7etan
Nondik: Dimako herriko plazatik
Ibilbidearen luzera: 32 km
Antolatzailea: Aizkorriko Udala
ANIMAU ZAITEZ ETA ERDU!

HERRI KIROLAK

Bost herri kirolari arratiar eta Pedro J. Monge gitarrajolea

Erredakzinoa

Dimetal Fest jaialdiak aurten eka-riko dituan barrikuntzen artean, herri kirolak eta metal musikea buztartzen dituan proposamen hau dago. Pedro J. Monge Whaldemar taldeko gitarrajoleak ipiniko dau musikea eta Arratiako bost kirolari erakustaldia egingo dabe metal soinuakaz batera. Hitzordua, urri lehenengoaren 29an izango da, 13:30ean, Dimetal Fest-eko EH Matxete eszenale-

kuan.

Azkora beharretan Aitzol Atutxa dimoztarra eta Irati Astondoa zeanuriztarra, ingudea altxetan, Haizea Ziarrusta dimoztarra eta tron-tzan Jon eta Aitor Loiola anaiak egongo dira erakustaldi original honetan. Ez dago argi, gitarrajolea egokituko ete dan herri kirolari ala alderantziz izango ete dan. Baina bai musikazaleak bai herri kirol zaleak, sano ikuskizun desbardina gozatuteko aukerea izango dabe Diman.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

ZIENTZIA ETA BERTSOLARITZEA

Zientzia eta bertsoak buztartzen dauan ikuskizuna Lasarte Aretoan

Bertsolari bi, hiru zientzilari eta Kike Amonarriz aurkezle lanetan egongo dira urri lehenengoaren 29an, iluntzeko 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan *Jakinduriek mundue erreko dau!* bertsoak eta zientzia batzean dituen emonaldian.

Erredakzioa

Bertsolariak, Miren Artetxe eta Jon Maia izango dira eta hizlariak, Naiara Barrado, Josu Lopez-Gazpio eta Onintze Salazar zientzilariak.

Naiara Barrado fisikariak, *Jupiterreko haizeak... bai ilea harrotu!* izeneko berbaldia eskainiko dau eta ondoren Miren Artetxe eta Jon Maia bertsolariak erimik ipiniko deusiez gaiari. Hurrengo berbaldia, Josu Lopez-Gazpio kimikan doktoreak emongo dauana izango da, *Buruak galzten denean...* titulupean. Atzenik, Onintze Salazarren txandea izango da, *Eguraldiaren soinuak* izeneko berbaldiagaz. Berbaldi bakotxaren ostean bertsolariak ipiniko deutseez gaiari erimik eta doinuak.

Jakinduriek mundue erreko dau! saioa EHU-UPVko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Igorreko Udalak antolatuta dabe. Sarrerea libre eta dobakoa da eserlekuak bete arte.

JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU
ZIENTZIA ETA BERTSOLARITZA UZTARTZEN DITUEN SAIOA

ONDARROA: IRAILAREN 20an, OSTEGUNA, 18:30etan, BEKOZINEN BERTSOLARIAK: HIDR ELORTZA ONINTZA ENBETA HIZLARIAK: ONINTEZ SALAZAR JOSU LOPEZ-GAZPIO BITTOR RODRIGUEZ	DURANGO: IRAILAREN 21ean, OSTIRALA, 19:00etan, PLATERUEAN BERTSOLARIAK: AURR SARRIEGI JONE URRA HIZLARIAK: BLAZZ PEREZ DE VINALPINE JOSU LOPEZ-GAZPIO LEIRE SANDRONIZ	IGORRE: IRAILAREN 29an, LARUNBATA, 20:00etan, LASARTE ARETOAN BERTSOLARIAK: MIREN ARTETXE JON MAIA HIZLARIAK: NAIARA BARRADO JOSU LOPEZ-GAZPIO ONINTEZ SALAZAR
--	---	--

JAIK

San Migel jaiak ospatuko ditue hainbat auzotan**Erredakzioa**

Hilaren 29an da San Migel eguna eta Arratiako hainbat auzunetan dagoz izenpe horretako ermitak; Alzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre) eta Urriben (Zeanuri), berbarako.

Eguna mezea eta barauskariagaz ospatuteko ohiturea dago Artean. Alzustan barriz, egun biko jaiak prestatu dabez aurten auzokoak. Seguruenik, bola jokoak erakarriko dau jentrik gehien, Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea jokatu da eta San Migel egunean.

Urriben aurreko domekan ospatuten dira jaiak.

Urriben (Zeanuri)

Urri lehenengoak 22, zapatua 14:00etan, auzo bazkaria eta

arrastian, musikea, "zapora" kanporaketea eta Briska eta Mus Txapelketa.

Urri lehenengoak 23, domeka

10:30ean, bizikleta igoera, plaza-tik Urkistera.

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria eta herriko txistulariak.

Urri lehenengoak 24, astelehena

12:00etan, arimen aldeko mezea. Arrastian, urdaia eta txokolatea eta "zapora" finala.

Alzustan (Zeanuri)

Urri lehenengoak 28, barikua 18:30ean, izen emotea Mus Txapelketa.

19:00etan, Mus Txapelketa.

Urri lehenengoak 29, zapatua

11:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

17:30ean, Bola Txapelketea.

21:00etan, auzo afaria.

Jauregi-Yeuri (Bedia)**Urri lehenengoak 29, zapatua**

12:00etan, jaien hasikerea eta pintxo-potea.

13:00etan, Igel Txapelketea.


15:00etan, auzo bazkaria.

17:00etan, Briska eta Mus Txapelketea.

17:00etatik 20:00etara, jolasak.

21:30ean, txokolatea eta sari banaketak.

22:00etatik 01:00etara, diskotekea.



Arteako San Migel ermitea.

ARGAZKIGINTZEA

Zeanuriko I. Argazki Lehiaketea antolatu dau Udaleko Kultur Batzordeak**Erredakzioa**


Uraren gaineko hausnarketea bultzatzeko helburuagaz Zeanuriko Udaleko Kultur Batzordeak I. Argazki Lehiaketea antolatu dau. Gaia, Zeanuriko ura da. Argazkiak aurkezteko epea urri bigarrenaren 1etik abenduaren 1era arte da eta irabazleak 200 euro jasoko ditu sarritzat.

Parte hartzeako Zeanurin erroldatuta egon behar da eta partaide bakotzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiok,

2018 urtean ateratakoak izango dira, inoz argitaratu bakoak eta JPG formatuan aurkeztuko dira zeanuriargazkiak2018@gmail.com helbidean.

Sariak

Hiru sari egongo dira; lehenengo 200 eurokoa, bigarrena 150 eurokoa eta hirugarrena 100 eurokoa. Argazki sarituen eta sari banaketaren barri Gabon Kulturalaren egitarauaren barruan emongo da. Aste horretan, parte hartu daben argazkien erakusketea be egongo da.



AEK

Ikasturteagaz batera euskaltegi barria estreinauko dabe AEK-ko ikasleak

Urri bigarrenaren 1ean hasiko da ikasturtea AEK-ko Kubulu Euskaltegian.

Ikasturteagaz batera, ikasle-irakasleak lokal barria be estreinauko dabe

Igorreko Elexalde kalean.

Kubulu Euskaltegiak 16 irakasle eta 200 ikasleren bueltan izaten ditu eta oin arte alokairuan eukien lokala txiki geratu jakie. Euskaltegi barria handiagoa da, ikasleak eta irakasleak erosoago egoteko. Han, oindino zerbitzu hobea eskaini ahal izango deutseela ikasleai dino Edurne Gorospe irakasleak.

Lau ikasgela, autoikaskuntzarako gela txiki bat, biltegia, irakasle gela, bulegoa eta komunak ditu euskaltegi barriak. Oin artekoak baino gela bat gehiago eta handiagoak. Baina batez be alde igarriko da karrajuan eta komunetan. Izan be, "karrajua oso estua da eta jentea trabauta gera-

tzen da bertan". Komunak, gurpildun aukietan dagozan personak erabilteko modukoak dira.

Inaugurazino ekitaldia urri bigarrenaren 6an izango da.

Ikastaroak eta gehiago

Euskal Herria euskalduntzeko helburuagaz mota guztietako ikastaroak eskaintzen ditu AEK-k. Baita Arratian be. Maila guztiak, taldeetan zein autoikaskuntzaren bitartez. Taldeak osatuterakoan, ez bakarrik ikasleen maila, beste ezaugarri batzuk be izaten ditue kontuan AEK-koak. "Guraso taldeak daukaguz, merkatariak... Enpresetan be eskolak emoten doguz; ze

Errota Fundazinoko proiektuagaz lan mundua apur bat euskaldundu gura dogu. Jubiladu talderen bat be izan dogu eta pasa dan ikasturtean errefujia- du talde bat be euki genduan" azaldu deutso BEGITURI AEK-ko irakasleak.

Eskolak 16 urtetik gorakoentzat dira eta aurrez aurreko taldeetan, astean 10 ordu, 8 ordu edo 6 ordu izaten dira. Ikasleen perfila ugaria da, euskeraz ezer ez dakian Euskal Herrira etorri barritik hasita, titulua behar dauan gazte euskalduna arteraino.

Kubulu Euskaltegian Arratiako herri guztietako ikasleak ditue. Dana dala, herri batzuetan, Lemoan edo Areatzan,



berbarako, herrian bertan emoten ditue eskolak, ikasleak mobidu beharra izan ez dagien.

Lokal barriak beste erabile- ra batzuetarako aukerea be

emongo dauala dino AEK-koak. "Danon artean ebatzi beharko dogu zer egin, baina erakusketak edo euskalduntzeari lotutako beste jarduerak egin ahal izango dira bertan".

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net



Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 17 AREATZA

Areatzako Mendi Martxan izena online emoteko epea zabalik urri lehenengoaren 20ra arte, www.aretzakomendimartxa.blogspot.com webgunean.

BEDIA

Hilaren 21era arte, 16:30etik 19:30era, udal ikastaroetan izena emoteko epea; 18:00etatik 19:30era, Umeen Irakurle Klubean izena emoteko epea. Liburutegian.

DIMA

Hilaren 29ra arte, Dimetal Fest eta Andraizeak antolatuta, Unai Endemañoren *Rock and Roses* argazki erakusketea Informazio Bulegoan.

IGORRE

10:00etan, orientazio saioa. Beharbidetara.

ZEANURI

Hilaren 23ra arte, Gorbeia Jubiladuen alkarteak hilaren 27rako antolatutako txangorako emon daiteke izena.

URRI LEHENENGOAK 19 IGORRE

Urri lehenengoaren 22ko Inbiu Eguneko bazkarirako txartelak erosteko atzen eguna. Gau Lora, Ezkiña eta Jubiladuen taberna.

URRI LEHENENGOAK 20 LEMOA

18:30ean, Plan Generala: *Lemoa herri anitza*. Kulturgunean.

ZEBERIO

Gure Indarra jubiladuen alkarteak antolatuta, Zumaia eta Zarautzera txangoa. 09:00etan Ermitabarrin; 09:05ean, plazan; 09:10ean, Arkulanda eta Santa Kruzen. Bueltea 19:30ean.

URRI LEHENENGOAK 22 AREATZA

08:00etan, VII. Areatzako Mendi Martxaren urtekerea plazatik.

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, berbaldia eta ibilbide gidatua, muxar grisa ezetutako aukerea. Eduardo Bidaurrezaga

biologoaren eskutik. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonora deituta.

DIMA

07:00etan, Ermiten Ibilaldia herriko plazatik abiatuta. 32 kilometro. Ondoren kopaua.

19:00etan, Nicole & Martin konpainiaren *Arrantzalea eta emaztea* ikuskizuna karpan.

IGORRE

Inbiu Eguna. 12:00etan, kalejireia EinGO Kantan eta Dantzari taldeagaz eta Maurizia, Leon eta Fasioren erraldioak; 13:00etan, erronka erraldioa Agirre Lehendakaria kalean; 15:00etan, bazkaria Kultur Etxeko plazan; ostean, EinGO Kantan eta Dantzari taldeagaz kantaldia; 18:30ean, AMEren eskutik, erromeria



Arteatik Laguardiara bertsotan

Oporren ostea gogorra dala esaten dabe; bada, aldats gora hori apur bat samurtutoko bodega batera joatea aukera ona izan daiteke. Izan be, Arteako Jubiladuen Alkarteak Laguardiara bertso-txangoa prestatu dau Udalaren laguntzeagaz.

Urri lehenengoaren 22an 09:30ean izango da urtekerea Arteatik bertatik. Izena Arteako udaletxean emon behar da urri lehenengoaren 18ra arte. Herrian erroldatutakoak 30 euro ordaindu beharko dabe eta ez erroldatutakoak 40. Prezioaren barne dagoz autobusa, bazkaria, Launa bodegara bisitea eta hamaiketako, baita Fredi Paia eta Arkaitz Estiballeren bertso saioak be.

Jokaldi taldeagaz eta bitartean txokolatea.

LEMOA

Lemoako Txirindulari Elkartearen Errioxara urtekerea eta Urizaharrako gainera igoera.

ZEANURI

Jaiak. 14:00etan, Urriben, auzo bazkaria eta arrastian, musika, "zapora" kanporaketea eta Briska eta Mus Txapelketak.

URRI LEHENENGOAK 23 BEDIA

Kotxe Bako Eguna. 10:30ean, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan (kaskoa eroran); 11:30ean, bide segurtasun zirkuitua; 13:00etan, bizikletearen zozketea parte hartzaileen artean.

DIMA

11:30ean, Igitie Azokea.

12:30ean, Nicole & Martin konpainiaren *Eskurik ez zuen neska* ikuskizuna karpan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Miraveche-Sobron. Cantuña (1.353 m.)-Umion (1.437 m.).

ZEANURI

Jaiak. 10:30ean, bizikleta igoera, Urribeko plazatik Urkistera; 12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria eta herriko bistulariak.

URRI LEHENENGOAK 24 BEDIA

Euskarearen aldeko leloentzako Irudi

Lehiaketea. Leloa: "Gaur bihar eta etzi euskarari eutsi". 16:30etik 19:30era Liburutegian.

ZEANURI

Jaiak. 12:00etan, arimen aldeko mezea Urriben. Arrastian, urdaia eta txokolatea eta "zapora" finala.

URRI LEHENENGOAK 25 LEMOA

12:15etik 13:45era eta 14:30etik 15:15era, Lanbide puntu mobikorra JB Eguzkiza Meabe kalean.

URRI LEHENENGOAK 26 BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalaren eskutik liburutegian.

URRI LEHENENGOAK 27 ZEANURI

09:00etan, Gorbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, urtekerea Bermeo eta Plentziara.

URRI LEHENENGOAK 28 BEDIA

21:30ean, zinea kalean *Printze txikia* filma plazan.

DIMA

Dimetal Fest. 20:00etan, Sönambula; 21:05ean, Perroala; 22:15ean, Alma Culter; 23:25ean, Kartzarot; 00:40ean, Dominium eta 02:00etan, DJ Achtung. Koba eszenalekuan (Abaroa Aretoa).

LEMOA

17:00etan, Lemoako Udalak eta Zaztaparrak antolatuta, kalea hartuz ludotekako ekintza Batzoki osteko parkean.

ZEANURI

Jaiak Altzuztan. 18:30ean, izen emotea Mus Txapelketarako; 19:00etan, Mus Txapelketea.

URRI LEHENENGOAK 29 BEDIA

Jauregi-Yeuri auzoko jaiak. 12:00etan, jaien hasikerea eta pintxo-potea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 15:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketea; 17:00etatik 20:00etara, jolasak; 21:30ean, txokolatea eta sari banaketak; 22:00etatik

01:00etara, diskotekea.

DIMA

Dimetal Fest. 11:00etan, Dani Alvarezek gidatutako eztabaida/solasaldia Abaroa Aretoa; 11:30ean, umeentzako jolasak eta Clandestine body art plazan; 13:30ean, herri metal kirolak: Irati Astondoa, Aitzol Atutxa, Aitor eta Jon Loida anaiak eta Haizea Ziarrustaren herri kirol erakustaldiak Pedro J. Mongeren musikeagaz EH Matxete eszenalekuan; 15:00etan, bazkaria; 16:30ean, Metal Olinpiadak EH Matxete eszenalekuan.

Kontzertuak. **Lemmy eszenalekuan:** 18:55ean, The Faithless; 20:15ean, Auritz; 21:45ean, Crisis; 23:00etan, zozketea; 23:50ean, Anestesia; 01:50ean, Angelus Apatrida; 03:30ean, Ezten Giro taldeagaz erromeria. **Infernu eszenalekuan:** 18:15ean, Meltdown; 19:35ean, Niketz; 21:00etan, The Wizards; 22:55ean, Whäldemar; 01:00etan, Overloud. **Koba eszenalekuan:** 18:15ean, After Life; 19:35ean, Extinction; 21:00etan, Bloody Brotherhood; 22:55ean, Aposento; 01:00etan, A.D.; 02:00etan, DJ Jarros. **EH Matxete eszenalekuan:** 18:30ean, Holy Txala; 19:15ean, Üther; 20:00etan, All I Need; 20:45ean, Damned Ritual; 21:30ean, Debon; 22:15ean, Lurgorr; 23:00etan, Mosh; 23:45ean, Herabe; 00:30ean, Song of Anubis; 01:15ean, Kohatu.

IGORRE

20:00etan, *Jakinduriek mundue erreko dau!* Zientzia eta bertsolaritzea buztartzen dauan ikuskizuna. Kike Amonarrirek aurkeztuta. Lasarte Aretoa.

ZEANURI

Altzuztako Jaiak. 11:00etan, mezea eta ondoren barauskarria; 17:30ean, Bola Txapelketea; 21:00etan, auzo afaria.

URRI LEHENENGOAK 30 IGORRE

Igorreko VI. Duatloi Herrikoia eskolatan. 10:00etan, izen emotea; 11:00etan, 0 eta 5 urte bitartekoen proba; 11:15ean, 6 eta 9 urte bitartekoen proba; 11:30ean, 10 eta 15 urte bitartekoen proba. Ondoren kopaua eta opari zozketea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi ugerka2@

hotmail.com helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.


Onintze Petralanda (Igorre)
Juanma Labandibar (Arte)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Mugaeguna. 2.- Algodoi. Konsonantea. 3.- (Atz.) Lo asko egiten dauana. Barioa. 4.- Euskera zaharrea, txakur. Birritan, zeden. 5.- Letra bat. Itsasoko portu. Bokala. 6.- Eguneroko jaki. Txirri-birriaren kantua onomatopeia. 7.- Nora atzizkia. Itxi. 8.- Bostehun erromatar. Sendo. 9.- Ospetsua.

GOITIK BEHERA

1.- Eguzki. Babestu. 2.- Hutsegite. Galioa. Azken letrea. 3.- Jatorri. (Atz.) Zidarra. 4.- Molekule. Bokala. Logaritmoaren laburdura. 5.- Bike. Moztu. 6.- Konsonantea. Parea. Gora joan. 7.- Modua. Patxadaz.



Topau zazpi mendi historikoren izenak.



umaen moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 25

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

GARAZI OLABARRIETA

"Ez dago umeentzako musika bat eta helduentzako beste bat"

Garazi Olabarrieta Igorrekoa Arratiako Musika Eskolako irakaslea da. Zeharkako txirula jotzen dau, baina batez be ahotsaren lanketari emon deusaz atzen urteak. Pasa dan ikasturtetik umeen adimen musikala, eta ume eta gurasoen arteko hartu-emon afektiboak garatutea bilatzen dabezan eskolak emoten deutsez 0 eta 3 urte bitarteko umeai eta euren gurasoai.

Umeak gurasoentzako esanguratsua dan musikea entzun behar dabela uste dau irakasleak.

Erredakzioa

Zein da gehien gustetan jatzun musikea? Badago gustetan ez jatzun estilorik?

Gehien entzuten dodana rock musikea da, baina nire gustuak ugariak dira: musika klasikotik hasita gaur egungo musika modernoenerarte. Danerik. Baina bai, gehien entzuten dodana rock-a da, bere kategoria guztietan.

Sano papel garrantzitsua dauka musikeak nire bizitzan. Ez maila profesionalean bakarrik. Musikea ezinbestekoa da nire bizimodu- duan. Altxatzen nazanetik lokartzen nazan arte beti izaten dot oso presente. Eta ez dot irudikatzen nire bizitza musikea presente egon barik.

Orokorrean bizitzan musikea preminazkoa dala uste dozu?

Bai. Jenteak musikea entzuten dau egunero. Bueno, batzuek ko- txean dagozanean bakarrik. Baina musikea nire ustez entzumen eta interpretazino artea dan aldetik preminazkoa dala esango neuke. Ezelango duda barik. Ekarpen handia egiten deutso bai nire bitzitzari, baita gizarteari be. Gizartean, danerako eta arlo guztietan

erabilten dogu musikea: jai bat egin gura dogunean, edo hiletetan.

Edade desbardineterako musika desbardinak dagoz?

Guraso askok galdetuten deuste, "zein da umeak entzun behar daben musikea?" Eta nik beti esaten dot, etxean entzuten dan musikea eta gurasoentzako esanguratsua dan musikea dala umeak entzun behar dabena. Gurasoak pozik badagoz musika mota bat entzuten, hori esanguratsua da eta umeak igarri egiten dau. Ez, ez dago umeentzako musika bat eta helduentzako beste bat.

Lotura emozionala sortzean dauan musikea baino, ezta?

Hori da. Nik ez dot esaten umeak Mozart edo beste baten musikea entzun behar dabela. Etxean entzuten dana ondo dago. Entzutea da inportantea.

Arratiako Musika Eskolan 0 eta 3 urte bitartekoentzako eskolak emoten dozuz.

Bai. Igaz hasi zan holango ikastaro bat martxan Arratiako Musika Eskolan. Talde bat sortu zan urte biko umeakaz.

Aurten be talde bakarra dago?

Ez, talde bi. Igazkoaren jarraipena dago. Hor gehienak 3 urtekoak dira, eta talde barri bat, urte bikoak. Arrakasta handia izan dau eta jentea kanpoan geratu da. Ez dago lekurik, baina datorren ikasturtari begira talde gehiago sortutea espero dot. Nire ikaslerik txikerrenak 8 hilabete ditu.

Zeintzuk dira talde horreen helburuak?

Musika estimulazino goiztiarra egiten dogu eta nire helburuetako bat adimen musikala garatutea da. Nik badakit ikasle guztiak ez dirala izango musikariak, baina batez be saiatuten naz entzuleak prestatzen. Entzule kritikoak.

Ikastaroak, adimen musikala garatuteaz aparte, guraso eta umeen arteko modu afektiboan beste moduko hartu-emonak bultzatzen ditu musikearen bitartez. Musika saio gidatua da.

Pauta batzuk dagoz gelan. Saiatzen naz barbarik ez egiten eta dana musikearen bitartez adierazoten. Gurasoak sano parte hartzaile aktiboak dira. Umeak beste hartzean dabe parte. Edo gehiago. Batez be landuten doguna dira letra bako abestiak. Bloke nagusiak ahotsa eta mobimentua dira.

Zaharrentzako ez dago ezer? Batzuetan emoten dau dana ikasi behar dala umetan eta nagusi edo zaharrok dana dakigula. Baina bizitzak diferentiek dira danak eta batzuek, heldu edo zahar diranean, ikasi gura izaten dabe gaztetan ikasterik euki ez dabena. Arratian badago demanda hori?

Bai. Eta urteak aurrera joan ahala, gero eta edadeko jente gehiago animetan da musikea ikasten. Askotan gazte denporan ez dabe musikea ikasteko aukerarik izan eta hasi egiten dira edadean. Eta badago beste jente asko koruan ibili dana, edo koruan dabilana, Luis Iruarrizaga Abesbatzan edo Arratiako koruan, barbarako, eta gura dauana dakiana sendotu: partiturak irakurten ikasi, esate baterako.

Gorantza doa demanda hori. Zein litzateke metodologia?

Nik beti esaten dot hizkuntzen moduan ikasten dala musikea. Lehenengotik entzun egiten dozu, gero imitetan hasten zara, gero zentzua topetan hasten zara eta atzenik egiten dozuna da sortu. Eta gero idatzi. Orduan hori izan beharko litzateke musika ikasteko bidea. Nik uste dot hori dala prozesu naturala.

Guraso askok esaten deuste izan dabela nahiko esperientzia txarra musika ikasten, konserbatorio garaian, gogorra zanean eta ume txikerrakaz etorten diranean klasera musikeagaz euki daben barrera hori apurtu egin dabela. Asko disfrutetan dabe!

Zuk bandaren baten edo josten dozu?

Ez. Urte askoan egon nintzan Areatzako Bandan jotzen, baina egia da sorkuntza ez dodala garatu... Bueno oin banabil nire 2 eta 3 urteko ikasleentzat neure abestiak sortuten, batez be modu griegoetan ez dagozalako gauza asko euskeraz. Oso material gitxi

dago eta ni saiatzen naz gauzak sortzean eta eurai erakusten. Baina ez, ez dot inon jotzen. Musika Eskolan bai, kontzerturen bat eskaini dot, pare bat abesti kantau dodaz eta hor geratzen da.

Behin baino gehiagotan egin deusuet pregunta bera baina musika taldeak gehiengo handi baten gizonak osotuten dabez. Musika Eskoletan barriz, neska portzentaje handia dago ikasleen artean. Zerk egiten dau kale ikasleak ikusita espero leikeana baina hainbeste neska gitxiago egoteko rock talde edo beste edozein bandatan?

Ez dakit. Nik bai pentsetan dot aldaketa bat dagoala eta gero eta talde misto gehiago dagozala. Badagoz andrazko musikari oso-oso potenteak. Hor dago PJ Harvey, barbarako. Baita Euskal Herrian be. Egia da musika eskolan neska piloak dabizala eta gero ez dakit zer pasetan dan musika taldeetan hain gitxi egoteko.



Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak.

Agirre lehendakaria, 4/ Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

Diru-laguntzak

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.



Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK